DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Anoeta Kiroldegia S.A.

Anoeta pasealekua, 1 - Tel. - 943481875 - anoeta_kiroldegia@donostia.eus - www.donostia.eus
20014 Donostia / San Sebastián

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, ANOETA KIROLDEGIAK DONOSTIAKO ANOETAKO MINIESTADIOA BIRMOLDATZEKO PROIEKTUA ETA ERAIKUNTZA MODU INTEGRATUAN KUDEATZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO LIZITAZIOA −PROZEDURA IREKI BIDEZKOA− ARAUTUKO DUTENAK.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Prozedura honen xedea da ANOETA KIROLDEGIA SAk kontratista bat hautatzea, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen **Karatularen 1. puntuan** (aurrerantzean, Karatula) adierazitako zerbitzuak eman ditzan.

Aipatutako zerbitzuak Agiri honen, Preskripzio Teknikoen Agiriaren eta kontratistaren proposamenaren arabera egingo dira.

Kontratuaren zati desberdinak sortatan banatu eta modu independentean egitea aurreikusten bada, **karatularen 1. puntuan** honako hau adierazten da: zer sortatan zatituko den kontratua; hala badagokio, zenbat sortatarako aurkez dezake lizitatzaile batek bere eskaintza; hala badagokio, zenbat sorta esleitu dakiokeen lizitatzaile bati, eta, azkenik, kasu bakoitzean ezartzen diren beste alderdi batzuk.

Kontratuaren CPV-kodea **karatularen 1. puntuan** dago.

2. ERAKUNDE KONTRATISTA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Erakunde kontratista ANOETA KIROLDEGIA SA da (aurrerantzean, erakunde kontratista).

Kontratazio Organoa **karatularen 2. puntuan** adierazten dena da. Hark, hala badagokio, eta aplikatzeko modukoak diren zuzenbide pribatuko arauen arabera, egokitzat jotzen dituen pertsonei espresuki ahalmena eman ahal izango die kontratuarekin zerikusia duten zenbait jarduera aurrera eramateko.

3. ESLEIPEN-PROZEDURA

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko zaio kalitate/prezio erlaziorik onena duen eskaintza aurkezten duen lizitatzaileari, betiere agiri honetan ezarritako esleipen-irizpideekin bat (aurrerantzean, eskaintzarik onena).

4. ALDAERAK

Lizitatzaileek aldaerak eskaintzeko aukera, hala badagokio, **karatularen 3. puntuan** adierazten da.

Aldaerak onartzen badira, **karatularen 3. puntuan** adierazten dira bete behar dituzten gutxieneko baldintzak, modalitateak eta ezaugarriak, bai eta kontratuaren xedearekin duten lotura ere.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Kontratuko dokumentutzat joko dira, esleipena egin ondoren formalizatzen den kontratuaz gain, honako dokumentu hauek:

- Administrazio-Klausula Partikularren Agiri hau eta haren Karatula.
- Preskripzio Teknikoen Agiria.
- Esleipendunak aurkeztutako eskaintza.
- **Karatularen 4. puntuan** adierazitako beste edozein dokumentazio.

Esleipendunak sinatu beharko ditu dokumentu horiek, kontratua formalizatzeko ekintzan, guztiak onartzen dituela frogatzeko.

6. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena **karatularen 5. puntuan** adierazitakoa izango da.

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1 LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Oinarrizko lizitazio-aurrekontua **karatularen 6.1** puntuan adierazten da.

Era berean, kontratuaren prezioa ere **karatularen 6.1 puntuan** azaltzen da.

Aipatutako kontratuaren prezioak barne hartuko ditu kontratua gauzatzeko beharreko kostu guztiak, besteak beste, eta batzuk aipatzearren, baina horietara mugatu gabe, honako hauek:

- Kontratua gauzatzeko beharrezko zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak, Agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian aurreikusitako moduan. Ez da onartuko aldez aurretik amaierako prezioan jasota egon beharko luketen kontzeptuak fakturatzea.

- Kontratua betetzeko atxikitako edozein kontzeptu eta hura gauzatzeko erabili diren langileei lotutako gastu guztiak (hau da, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gaueko eta jaiegunetako lanak, baja eta gaixotasunagatiko ordezkapenak, banakako istripuen asegurua, laneko arriskuen prebentzioa, etab.), baita zerga guztiak (BEZ ezik), aseguruak, lizentziak, garraio eta desplazamendu gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokorrak ere.

- Kontratua gauzatzeko, kontratistak erabili behar dituen bitarteko, tresna, ibilgailu, ekipo, lanabes, ekipo informatiko eta gailu guztiak.

- Erakunde kontratistak agindutako lan eta informazio bilera guztietara joatea, kontratua zuzen gauzatu eta bete ahal izateko.

- **Karatularen 6.1 puntuan** aipatutako beste edozein kontzeptu.

7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia **karatularen 6.2 puntuan** adierazitako zenbatekoa da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 101. artikuluaren arabera. Adierazitako lege horren bidez ekartzen dira Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak.

Balio zenbatetsi hori SPKLren 101. artikuluan xedaturikoaren arabera kalkulatu da.

Aurreikuspen horrek ez dio konpromiso zehatzik ekarriko erakunde kontratistari.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Karatulako 7. puntuan aurreikusitako moduan ordainduko da kontratuaren prezioa.

Erakunde kontratistak, dagokion faktura jaulkitzen denetik, 30 egun naturaleko epean ordainduko ditu zenbateko horiek, betiere erakunde kontratistaren oniritzia badu.

Ez da lan edo zerbitzurik ordainduko, baldin eta Agiri honetan, Karatulan nahiz Preskripzio Teknikoen Agirian aurreikusitako kontratuaren xedetik kanpo egin bada edo, hala badagokio, aldez aurretik erakunde kontratistak eskatu ez badu.

9. PREZIOAK EGUNERATZEA

Karatularen 8. puntuan adierazitakoa beteko da.

10. PUBLIZITATEA

Erakunde kontratistaren kontratazio-profilean honako hauek argitaratuko dira:

- Lizitazioaren deialdiaren iragarpena.
- Kontratuaren esleipenaren iragarkia.
- Kontratuaren formalizazioaren iragarpena.
- SPKLren 63. artikuluan zerrendatzen den gainerako informazioa.

Erakunde kontratistaren profil hori honako webgune hauetan ikusi ahal izango da: www.contratacion.euskadi.eus eta www.donostiakirola.eus.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko bermea jarri beharko du, **karatularen 9. puntuan** adierazitako zenbatekokoa.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu duela egiaztatu beharko du 10 egun balioduneko epean, kontratazio-organoak horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

SPKLren 101. artikuluan zerrendatutako kontzeptuei erantzungo die aipatutako behin betiko bermeak.

SPKLren 108. artikuluan aurreikusitako moduetako batean eratu ahal izango da bermea, eta ez da beharrezkoa izango Gordailuen Kutxa Nagusian eratzea.

Bermea abal moduan aurkeztuz gero, Agiri honetako **I. eranskin**ean ageri den ereduaren araberakoa izango da.

Bermea eratu izana bitarteko elektronikoen bidez egiaztatu ahal izango da.

Kontratistari ezar dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak behin betiko bermearen kontura gauzatzen badira, kontratistak hura berrezarri edo handitu beharko du, dagokion zenbatekoan, hamabost egun naturaleko epean, zigorrak edo kalte-ordainak gauzatzen diren egunetik, bestela kontratua suntsiarazi ahal izango da.

Kontratuaren aldaketa baten ondorioz, haren prezioa aldatzen denean, kontratistak doitu egin beharko du behin betiko bermea, aldatutako prezio berriarekiko proportzioari eusteko. Kontratistak bermea egokitzeko hamabost egun naturaleko epea izango du, aldaketa onartu dela jakinarazten zaion egunetik aurrera.

Bermea bueltatzeko, SPKLren 111. artikuluak xedatutakoari jarraituko zaio, berme-epea igarotakoan eta kontratistak kontratu-betebehar guztiak betetakoan.

Bermea itzultzeko, erakunde kontratistak aldez aurretik egindako aldeko txostena beharko da.

Klausula honetan aurreikusi ez diren kontu guztietarako, SPKLren 106. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Pertsona naturalek edo juridikoek kontratatu ahal izango dute erakunde kontratistarekin, espainiarrak edo kanpotarrak izanda, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekurik ez badute eta kaudimena dutela frogatzen badute.

Era berean, lizitatzaileek kontratuak xede dituen prestazioak aurrera eramateko beharrezkoak diren enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala izan beharko dute, hala badagokio.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendunak izan ahal izateko, kontratuaren prestazioek haien estatutuen edo eraketa-arauen arabera berezko dituzten helburuekin, xedeekin edo jarduera-esparruarekin bat etorri beharko dute.

Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko Estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuetako enpresek erakunde kontratistarekin kontratatzeko gaitasuna izango dute, baldin eta, finkatuta dauden Estatuko legeriaren arabera, eskatzen den prestazioa emateko gaituak badaude; halakoetan, SPKLren 67. artikuluan xedaturikoa izango da aplikagarri.

Enpresa horiek finkatuta dauden Estatuko legeriak baimen berezi bat edo erakunde jakin bateko kide izatea eskatzen badu dagokion prestazioa eman ahal izateko, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Nazioarteko hitzarmenen ondorioz Espainiak dituen betebeharrak aplikatzeari utzi gabe, Europar Batasunekoak ez diren Estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu ez duten Estatuetako pertsona fisikoek nahiz juridikoek, dagokion txostenaren bidez, egiaztatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorria den Estatuak onartzen duela Espainiako enpresen parte hartzea SPKLren 3. artikuluan aipatutakoen pareko sektore publikoko erakundeekin kontratatzean, funtsean antzekoa den moduan. Txostena dagokion Atzerriko Espainiako Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du eta aurkezten den dokumentazioarekin batera entregatuko da.

Helburu horretarako sortzen diren aldi baterako enpresa elkarteek erakunde kontratistarekin kontratatu ahal izango dute. Ez da beharrezkoa izango enpresa horiek eskritura publikoan formalizatzea, kontratua haien alde esleitzen ez den bitartean, eta SPKLren 69. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Lizitatzaileek **karatularen 10. puntuan** adierazitako gutxieneko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta profesional edo teknikoa izan beharko dute.

Hala badagokio, lizitatzaileek, gutxienez, **karatularen 10. puntuan** adierazitako giza baliabideak eta/edo baliabide materialak jarri beharko dituzte kontratua gauzatzeko.

Aurrekoaren osagarri, hala badagokio, lizitatzaileek **karatularen 10. puntuan** adierazitako baldintza espezifikoak bete beharko dituzte.

Lizitatzaileei kontratua gauzatzeko giza baliabide eta/edo baliabide material jakin batzuk jartzeko konpromisoa eskatzen bazaie, konpromiso hori kontratuko funtsezko betebeharra izango da SPKLren 211.1.f. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta horrenbestez, obligazio hori ez bada betetzen, kontratua suntsiarazi ahal izango da erakunde kontratistak hala nahi badu.

Suntsiaraztearen alternatiba moduan, kontratistak aldebakarreko erabakiz kontratua gauzatzeko atxikitako pertsona bat aldatzen badu, berezko langilea nahiz azpikontratatutako enpresa bateko langilea izan, entitate kontratistak konprometitutako pertsona berehala atxikitzeko eskatu ahal izango du edo, bestela, ezinezkoa bada, kontratistaren esku ez dauden arrazoiengatik, prestakuntza eta esperientzia berdina duten giza baliabideekin berehala ordezkatzeko. Pertsona horrek erakunde kontratistaren berariazko baimena izan beharko du.

Eskatutako kaudimena eta/edo eskaturiko baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, lizitatzaileek beste erakunde batzuetara jo dezake haien kaudimena eta/edo baliabideak erabiltzeko, edozein dela ere haiekin dituzten harremanen izaera juridikoa. Nolanahi ere, kasu horietan kaudimen eta baliabide horiek kontratua gauzatzen den denbora guztian egiazki eskura izango dituztela frogatu beharko dute, bai eta haiek jo duten erakunde horiek ez dutela kontratatzeko inolako debekurik ere.

Beste erakundeen kaudimen eta/edo baliabideetan oinarritu nahi diren lizitatzaileek hala jakinarazi beharko dute 1. gutun-azalean gehitu behar duten erantzukizunpeko adierazpenean (zehazki, Europako Kontratazio Dokumentu Bakarraren II. zatiaren C atalean).

Osagarri gisa, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimena eta/edo baliabideak erabili nahi baditu, beharrezko baliabideak izango dituela frogatu beharko du, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztuta (**II. eranskinean** jasotako ereduaren arabera egina).

Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak baliatuko dituen erakundeak edo erakundeek notarioaren aurrean hartu beharko dute konpromiso hori, eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, honako hau adierazita: lizitatzailea parte hartzen ari den lizitazioaren baldintza guztiak ezagutzen dituela; kaudimena eta/edo atxiki beharreko baliabideak badituela, eta hori frogatzeko dokumentua aurkezten duela (17. klausulan aurreikusten den moduan); eta lizitatzaile hori esleipendun suertatzen bada, kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak haren esku jartzeko borondate atzera bota ezina adierazten duela (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan adierazten dena berariaz onartuz, eta erakunde kontratistak berariaz baimendu behar du haiek ordeztu edo aldatzea). Idazki hori aurkezteak esan nahiko du erakunde kontratistak konpromisoa onartzen duela, baldin eta dagokion lizitatzailea esleipendun suertatzen bada.

Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak 10 egun baliodun iragan baino lehen aurkeztu beharko du konpromiso hori, kontratazio-organoak horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Klausula honek aipagai dituen kontratatzeko gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete behar dira, eta kontratua burutzeko unean ere iraun behar dute.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

13.1. AGIRIAK ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA ESKURATZEA

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunetik egongo dira eskuragarri, eta hala jarraituko dute proposamenak aurkezteko epe osoan zehar, erakunde kontratatzailearen profilean.

Agiriak eta dokumentazio osagarria elektronikoak ez diren bideetatik eskuratzeko aukera ematen bada, **karatularen 11.1 puntuan** adieraziko da hala dela.

13.2. AURKEZTEKO BIDEAK

Proposamenak bitarteko elektronikoak erabilita aurkeztuko dira, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian jasotako baldintzen arabera.

Proposamenak bitarteko elektronikoetatik aurkezteko beharrezko informazioa eta zehaztapen teknikoak, zifratzea eta dataren baliozkotzea barne, Lizitazio Elektronikoaren aplikazioaren webgunean daude jasota, honako helbide honetan: http://www.contratacion.euskadi.eus.

13.3. GUTUN-AZALEN EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Lizitatzaileen proposamenak Agiri honetan eta bere Karatulan, Preskripzio Teknikoen Agirian eta kontratuaren gainerako dokumentazioan xedatutakoari egokitu beharko zaizkio, eta proposamen horiek aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen duela klausula horien guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Gutun-azal edo fitxategi elektroniko bakoitzak behean aipatzen ditugun dokumentuak izango ditu, baita bertan bildutako dokumentuen zerrenda zenbakitua ere.

Artxibo elektronikoak diren arren (proposamenak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkezten direnean erabiltzen dira), 1. Gutun-azala, 2. Gutun-azala eta 3. Gutun-azala deituko dira.

1. gutun-azala. "AURRETIKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA FROGATZEKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Erantzukizunpeko adierazpena, agiri honekin batera **III**. **eranskin** gisa doan Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (aurrerantzean, EKAB) inprimakira egokitua eta behean adierazten denaren arabera betea:

   - EKAB Europako Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Egikaritze Araudiaren (EB) I. eranskinean jasotako argibideei jarraituz bete beharko da, araudi horrek ezarri baitzuen Europako kontratazio agiri bakarraren inprimaki normalizatua.

   - EKAB agiriaren IV. zatiari (Hautaketa-irizpideak) dagokionez, lizitatzaileek A atala baino ez dute bete behar: “Hautaketa-irizpide guztiei buruzko adierazpen globala.”

   - Agiri horren 12. klausularen arabera, lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimen eta/edo bitartekoetara jotzen badu, erakunde horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, eta EKABen II. zatiko A (“Operadore ekonomikoari buruzko informazioa”) eta B (“Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa”) ataletan eta III. atalean eskatzen den informazioa jaso beharko dute bertan.

   - Aldi baterako enpresa-elkarte batean bilduta hainbat enpresari lehiatzen diren kasu guztietan, enpresa partaide bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat emango du, eta bertan EKABen II. zatitik V. zatira eskatzen den informazioa jasoko dute.

2. Baldin eta, **karatularen 10. puntuarekin** bat etorrita, kontratua gauzatzeko gutxieneko giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeko eskatzen bada, lizitatzaileek giza baliabide eta/edo baliabide material horiek kontratua gauzatzeko jartzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, Agiri honen **IV. eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

3. Aldi baterako elkartuta aurkezten diren enpresaburuek elkartea osatzen duten kideen izenak, inguruabarrak eta bakoitzaren parte hartzea adierazi beharko dituzte, eta, gainera, esleipendun suertatzen badira, aldi baterako enpresa elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartu beharko dute. Aldi baterako elkarte baten bidez lehiatu nahi duten enpresaburuek betebehar solidarioa izango dute, eta elkartearen izenean ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute, ahalorde askorekin, kontratutik eratorritako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko, kontratua azkendu arte; nolanahi ere, enpresek zenbateko handi samarrak kobratzeko eta ordaintzeko ahalorde mankomunatuak eman ahal izango dituzte.

4. Atzerriko enpresek berariazko aitorpena aurkeztu beharko dute. Bertan adieraziko dute, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera guztietarako, Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla eta, hala badagokio, atzerriko jurisdikzio foruari uko egingo diotela.

OHARRA:

Erakunde kontratistak frogagiri guztiak edo batzuk aurkezteko eskatu ahal izango dizkie lizitatzaileei, 1. puntuan aipatutako adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari dagokionez arrazoizko zalantzak daudela uste duenean edo prozedura behar bezala aurrera eramateko beharrezkoa denean.

Nolanahi ere, enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda baldin badago, edo Europar Batasuneko Estatu bateko datu-base nazional batean agiriak gordetzeko sistema elektroniko bat badago edo aurre-kalifikaziorako sistema bat badago, enpresaren espediente birtual baten moduan, eta aipatutako organoak doan sar baldin badaitezke horietara, ez da behartuta egongo aipatutako lekuetan inskribatutako datuen justifikazio agiririk edo bestelako frogagiririk aurkeztera.

2. gutun-azala "BALIO-JUDIZIOEN BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek **karatularen 11.2 puntuan** adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte gutun-azal honetan.

Lizitatzaileak arreta berezia jarri beharko du gutun-azal honetan sartu beharreko dokumentazioa prestatzeko garaian, eta edukiari buruzko argibideei jarraitu beharko die. Era berean, ezingo da erreferentziarik egin formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioaren gaineko alderdiak ezagutarazteko edo horiei buruzko orientazioak emateko bide eman dezakeenik.

Atzera bota eta prozeduratik kanpo utziko dira printzipio horiek betetzen ez dituzten eskaintzak.

Erakunde kontratistak beretzat gordetzen du, halaber, egokitzat jotzen dituen egiaztatze-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarria eskatzeko eskubidea, lizitatzaileek emandako informazioa egiazkoa dela egiaztatzearren.

Baldin eta, **karatularen 12. puntuarekin bat,** kontratua gauzatzeko atxiki beharreko giza baliabideak baloratzen badira, kontratistak aldebakarreko erabakiz kontratua gauzatzeko atxikitako pertsonak aldatzen baditu, berezko langileak izan nahiz enpresa azpikontratatukoak izan, entitate kontratistak konprometitutako pertsonak berehala atxikitzeko eskatu ahal izango du edo, bestela, ezinezkoa bada kontratistaren esku ez dauden arrazoiengatik, prestakuntza eta esperientzia bera duten giza baliabideengatik berehala ordezkatzeko. Pertsona horiek entitate kontratistaren oniritzia izan beharko dute.

3. gutun-azala. “FORMULEN BIDEZ EBALUATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, Agiri honi atxikita doan **V. eranskinean** jasotako ereduari jarraituz.

Erakunde kontratistak 1., 2. eta 3. gutun-azaletan jasotako dokumentuen edukia egiazkoa dela egiaztatu ahal izango du, esleipenaren aurretik zein ondoren, eta baita kontratuak irauten duen bitartean ere; eta enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak gezurrezkoak baldin badira, horrek kontratuaren deuseztasuna ekar dezake, kontratistak baldintzak bete ez dituelako.

14. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Esleipen-irizpideak, dagokien haztapenarekin aditzera emanak, **karatularen 12. puntuan** daude adierazita.

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Kontratazio Organoak Ebaluazio Batzorde baten laguntza izango du. Batzorde hori **karatularen 13. puntuan** adierazitako kideek osatuko dute.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak, aurretik, 1. gutun-azalean jasotzen den dokumentazioa ("Aurreko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa") kalifikatuko du, baldin eta denboran eta forman aurkeztu bada. Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak baldin badaude, erakunde kontratistak hiru egun naturaleko epea emango dio lizitatzaileari zuzentzeko.

Gero, 2. gutun-azala ("Kuantifikazioa balio-judizio baten mendean dagoen irizpideei buruzko dokumentazioa") irekiko da, bertan jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratzeko.

Balio-judizioaren bidez kuantifika daitezkeen irizpideei formulen bidez ebaluatu daitezkeenei baino haztapen handiagoa ematen bazaie, balio-judizioaren bidez kuantifika daitezkeen irizpideak **karatularen 14. puntuan** adierazitako kideek osatutako batzorde batek baloratuko ditu.

2.gutun-azaleko dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren, 3.gutun-azala ("Formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") irekiko da.

3.gutun-azala ("Formula bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") ireki baino lehen, lizitatzaileei jakinaraziko zaie “kuantifikazioa balio-judizio baten mendean dauden irizpideei buruzko dokumentazioaren” balorazioaren emaitza.

Gero, 3.gutun-azala ("Formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") irekiko da, bertan dagoen dokumentazioa aztertzeko eta baloratzeko.

Nolanahi ere, 3. gutun-azala (formulak erabiliz ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa) ekitaldi publikoan irekiko da, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren aplikazioaren bidez. 3. Gutun-azala irekitzeko eguna eta ordua (formulak erabiliz ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa) erakunde kontratatzailearen kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

Ebaluazio Batzordeak atzera botako ditu 1098/2001 EDren 84. artikuluan aurreikusitako kausetakoren baten pean dauden proposamenak eta aurkeztutako proposamenen zerrenda helaraziko dio Kontratazio Organoari, goitik beherako ordenan sailkatuta, **karatularen 12. puntuan** ezarritako esleipen-irizpideei jarraiki. Gainera, eskaintzarik onena identifikatuko du.

Lizitatzaile bat kanpoan uzteko erabakia hartzen bada, erakunde kontratistak berariaz jakinaraziko dio kanpoan utzitako lizitatzaileari.

Proposamena egin baino lehen, egokiak deritzon txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza baxuegia dela jotzen bada, **karatularen 12. puntuan** adierazitako parametroen arabera, Ebaluazio Batzordeak SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko dio, lizitatzaileak dagokion justifikazioa egin dezan.

Esleipen-proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde, erakunde kontratistaren aurrean. Nolanahi ere, Kontratazio Organoak kontratua ez badu egindako proposamenaren arabera esleitzen, adierazi beharko du erabaki horren zergatia.

17. KONTRATUA ESLEITZEA

Kontratazio Organoak, oro har, Ebaluazio Batzordeak eginiko proposamenarekin bat hautatu beharko du lizitatzaile esleipenduna. Bestela, Kontratazio Organoak proposamena alde batera uzteko erabakiaren arrazoiak eman beharko ditu, eta, kasu horretan, proposamenen behin betiko sailkapena egin beharko du.

Kontratazio Organoak Ebaluazio Batzordearen proposamena onartzen duenean, erakunde kontratistak honako dokumentazioa eskatu dio eskaintzarik onena egin duen lizitatzaileari, hamar egun baliodun iragan baino lehen, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera:

1. Eskaintzak aurkezteko azken egunean, erakunde kontratistarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela justifikatzeko dokumentuak. Halaber, gaitasun eta kaudimen baldintzak ere betetzen dituela, eta Agiri honen 12. klausulan adierazitako kontratazio-debekurik ez dagokiola justifikatzen duen dokumentazioa ere aurkeztu beharko du, jarraian adierazten moduan.

   Proposamena aldi baterako elkartean lehiatu nahi duten enpresariek formulatu

badute, aipatutako dokumentazioak elkartea osatuko duten enpresa guztiei buruzkoa izan behar du.

(i) Lizitatzailearen nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatzen dituzten dokumentuak, eta, hala behar duenean, baita haren ordezkariarenak ere:

- Pertsona juridikoak diren enpresariek jarduteko-gaitasuna konstituzio eskritura edo dokumentu bidez egiaztatuko da, edo, bestela, Estatutuen edo eratze-egintzaren bidez. Dokumentu horietan beren jarduera erregulatzen duten arauak agertu behar dira, behar den moduan inskribatuta, hala badagokio, dagokion Erregistro Publikoan, den pertsona juridiko motaren arabera.

- Europar Batasuneko kide diren Estatuetako enpresaburu ez espainiarrek jarduteko-gaitasuna egiaztatuko dute dagokien Erregistroan −ezarrita dauden Estatuen legeen arabera dagokiena− inskribatuta daudela frogatuz, edo zinpeko aitorpen bat edo egiaztagiri bat aurkeztuz, aplikagarri diren Batasuneko xedapenekin bat.

- Gainerako enpresari atzerritarren jarduteko-gaitasuna dagokien Estatuan Espainiak duen Misio Diplomatiko Iraunkorrak edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-eremuko Bulego Kontsularrak emandako txosten batekin egiaztatuko da. Txosten horren bidez justifikatu beharko dute enpresaren jatorrizko Estatuak ere onartzen duela espainiar enpresen parte-hartzea Administrazioarekin eta SPKLren 3. artikuluan zerrendatutako sektore publikoko erakunde, organismo edo entitate asimilagarriekin kontratatzean, funtsean modu berean.

- Pertsona fisikoak diren enpresarien jarduteko-gaitasuna Nortasun-Agiri Nazionala aurkeztuz egiaztatuko da, edo Estatu bakoitzeko agiri baliokidea aurkeztuta.

- Beste baten izenean agertzen edo proposamenak sinatzen dituztenek, Nortasun-Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, baita ahalorde askietsia ere. Enpresa pertsona juridikoa izanez gero, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du, hori beharrezkoa bada Merkataritza Erregistroaren Araudiaren 94. artikuluan aurreikusitakoaren arabera edo, hala badagokio, den pertsona juridiko motaren arabera dagokion Erregistro Publikoan egon beharko du inskribatuta.

Dokumentazio horren guztiaren jatorrizko agiriak aurkeztuko dira, edo behar bezala konpultsatutako kopiak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda dauden lizitatzaileek aukera izango dute indarrean dagoen izen-emate ziurtagiriaren kopia aurkezteko, Erregistroko letratu arduradunak emana, (i) atalean aipatutako dokumentazioaren ordez. Inskripzioaren egiaztagiriarekin batera erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, lizitatzaileak sinatuta, dokumentuan agertzen den informazio aldatu ez dela azaltzen duenak.

(ii) Agiri honen 12. klausulan eskatutako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa.

- <u>Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa.</u> Lizitatzailearen urteko negozioaren bolumena honako hauen bitartez frogatuko da:

  - Urteko kontuak, onartuak eta Merkataritza Erregistroan utziak, enpresaburua erregistro horretan inskribatuta egonez gero, edo bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean utzitakoak. Merkataritza-erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresariek negozioen urteko bolumena egiaztatzeko, inbentario-liburuak eta Merkataritza Erregistroak legeztatutako urteko kontuak aurkeztu beharko dituzte.

  - Lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, lizitatzailearen negozio bolumena adierazten duena.

- <u>Kaudimen teknikoa edo profesionala.</u> Hala behar bada, eskatutako kaudimena azken hiru urteetan egindako zerbitzuen edo lanen zerrendaren bidez egiaztatuko da. Zerrenda horretan, zerbitzuen zenbatekoa, data eta hartzailea (publikoa edo pribatua) adieraziko dira. Aipatutako lanak edo zerbitzuak organo eskudunak emandako edo sinatutako agirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea denean. Hartzailea subjektu pribatua izanez gero, berak emandako ziurtagiriaren bidez, edo ziurtagiri hori izan ezean, lizitatzailearen adierazpen baten bidez, prestazio hori egin izana egiaztatzen duten eta bere eskuetan dauden dokumentuekin batera.

Kontratista enpresa berria denean (hau da, bost urte baino gutxiago dituenean), SPKLren 90.1 artikuluaren b) letratik i)-ra aipatzen diren bitarteko baten edo batzuen bidez egiaztatuko da kaudimen teknikoa, baina ez da inola ere aplikagarria izango artikulu horren a) letran ezarritakoa, zerbitzu-kopuru jakin bat egin izanari buruzkoa. Zehazki, gaitasun teknikoa egiaztatzeko, honako bide hauek erabiliko dira: Adieraztea zer langile edo unitate teknikok parte hartuko duten kontratuan, enpresan integratuta egon ala ez; batez ere, kalitatearen kontrolaz arduratuko direnak aipatu beharko dira.

- Sailkapena. Hala badagokio, sailkapena organo eskudunak emandako ziurtagiri baten bidez egiaztatuko da, eta horrez gain, lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, egiaztagiria indarrean dagoela eta bertan jasotako inguruabarrek beren horretan jarraitzen dutela frogatzeko. Lizitatzaileak, esleipendun gertatuz gero, adierazpen hori berretsi egin beharko du kontratua formalizatzeko dokumentuan.

  Ziurtagiri horren bidez, egiaztatu beharko da lizitatzailea adierazitako taldean eta azpitaldean dagoela sailkatuta, adierazitako kategorian edo kategoria handiago batean.

  Ziurtagiri horrek, aldi berean, klausula honen 1. (i) atalean aipatutako inguruabarrak egiaztatu ahalko ditu, hau da, lizitatzailearen nortasuna eta jarduteko-gaitasuna eta, hala badagokio, ordezkaritza.

(iii) Erantzukizunpeko adierazpena; bertan lizitatzaileak adieraziko du, Agiri honen **VI. eranskinean** jasotako ereduaren arabera, ez dagoela SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko inongo debekuren pean.

(iv) Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

(v) Hala badagokio, **karatularen 10. puntuan** adierazitako eskakizun espezifikoak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

2. Hala badagokio, kontratuari atxikitzeko konprometituta dauden giza baliabideak eta baliabide materialak benetan eskuragarri daudela egiaztatzen duen dokumentazioa.

(i) Kontratua gauzatzeko konprometitutako giza baliabideei dagokionez, hala badagokio, aukeratutako lizitatzaileak honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Kontratua gauzatzeko atxikitako talde guztiaren identifikazio nominala, eskatutako baldintzak betetzen direla frogatzen duten curriculum vitaearen gaineko fitxekin batera:

  1. Titulazio akademiko ofiziala.

  2. Esperientzia, dagokion arloan.

  3. Hala dagokionean, erakunde kontratistak eskatzen duen beste edozer.

- Aipatutako giza baliabide guztiak benetan eskuragarri dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Datu pertsonalak babesteko Estatuko eta Europar Batasuneko araudian aurreikusitakoaren arabera, eta giza baliabideei buruzko dokumentazioan jasota dagoen informazio mota kontuan hartuta, (i) datu horiek biltzea eta erabiltzea aipatutako lizitatzaileak egin beharreko datuen tratamendua izango da, Tratamenduaren Arduradun gisa; eta (ii) klausula honetan aurreikusitakoa betez datu horiek erakunde kontratistari ematea datuak komunikatzea izango da, lizitatzaileak lagatzaile moduan arituz.

Ondorio horietarako, aukeratutako lizitatzaileak datu pertsonalak babesteko Estatuko nahiz Europar Batasuneko araudian xedatutakotik etorritako obligazioak bete beharko ditu, aurreko paragrafoan adierazitako datuen tratamenduari eta komunikazioari dagokienez. Bereziki, eta Tratamenduaren Arduradun gisa bete beharreko beste edozein obligazioren kaltetan izan gabe, lizitatzaileak bermatu beharko du, bere erantzukizun esklusiboaren pean, aipatutako datuen komunikazioan bete beharreko zilegitasun eta informazio eskakizunak betetzen direla; alderdi hori behar bezala egiaztatu beharko dio erakunde kontratistari, errekeritzen zaionean.

(ii) Kontratua gauzatzeko eskainitako baliabide materialei dagokienez, aukeratutako lizitatzaileak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- Kontratua gauzatzeari atxikitzen zaizkion baliabide materialen identifikazioa, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriekin batera.

- Baliabide material horiek guztiak badituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Erakunde kontratistak eskubidea du egokiak deritzon egiaztapenak egiteko edo lizitatzaileek emandako informazioaren egiazkotasuna frogatzeko helburuarekin beharrezkotzat jotzen duen informazio gehigarria eskatzeko.

3. Pleguaren 11. klausulan aurreikusten den behin betiko bermea jarri izana egiaztatzen duen agiria.

4. Hala badagokio, adierazpenen notario-akta, lizitatzaileak, eskatutako kaudimena eta/edo bitartekoak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu nahi badu; **II. eranskinean** jasotako eredua erabiliko da.

5. Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkarte gisa, legearen arabera, eratuta daudela egiaztatzen duen agiria; aldi baterako enpresa elkarteko ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak izango dituena kontratua amaitu arte.

Erakunde kontratistak eskubidea du egokiak deritzon egiaztapenak egiteko edo lizitatzaileek emandako informazioaren egiazkotasuna frogatzeko helburuarekin beharrezkotzat jotzen duen informazio gehigarria eskatzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak egonez gero, erakunde kontratistak 3 egun naturaleko epea eman ahal izango dio lizitatzaileari zuzentzeko.

Emandako epean, eskatutako dokumentazioa behar bezala betetzen ez bada edo aurkeztutako dokumentazioak zuzendu ezin daitezkeen akatsak nahiz omisioak baditu, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoaren % 3a (BEZ gabe) eskatuko zaio zigor gisa. Hurrengo lizitatzaileari dokumentazio bera eskatuko zaio, eskaintzak sailkatuta gelditu diren ordenaren arabera.

Kontratazio Organoak aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan esleituko du kontratua, eta gehienez ere bi hilabeteko epean, proposamenak ireki diren egunetik aurrera.

Kontratazio Organoak esleipena zeini eman erabakiko du, esleipen arrazoitu baten bidez, eta hautagaiei eta lizitatzaileei jakinaraziko die, haiek jakinarazpenak jasotzeko adierazitako bidetik. Erakunde kontratistaren kontratatzailearen profilean argitaratuko beharko da, 15 egun natural iragan baino lehen.

Esleipena Kontratazio Organoak erabakiko du ebazpen arrazoitu bidez, eta hautagaiei eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie, Lizitazio Elektronikoko Plataformaren bidez, eta erakunde kontratatzailearen kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 egun naturaleko epean.

18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua bere formalizazioaren bidez burutuko da.

Kontratua dokumentu pribatu batean formalizatuko da, lizitazioaren baldintzekin zehatz-mehatz bat etorrita. Kontratua formalizatzeko dokumentuan ezin izango da sartu, inola ere, kontratazioaren baldintzak aldatzea dakarren klausularik.

Hala ere, kontratua eskritura publikoan jasotzeko eskatu ahal izango du esleipendunak, gastuak bere gain hartuta.

Baldin eta kontratuak berekin badakar kontratistak erakunde kontratistaren kontura datu pertsonalak tratatzea, esleipendunak, kontratua formalizatu aurretik, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen **VII. eranskinean** jasotako ereduaren araberakoa. Bertan, datu pertsonalen tratamenduaren euskarri diren zerbitzarien kokapen fisikoa eta horiei lotutako zerbitzuak emateko tokia identifikatuko ditu.

Formalizazioa ezin izango da hamabost egun baliodun igaro aurretik egin, lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik.

Kontratuaren formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, erakunde kontratistaren profilean kontratua burutu eta gehienez 15 egun naturaleko epean argitaratuko da.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada formalizatu jarritako epean, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 (BEZ gabe) eskatuko zaio zigor moduan. Behin betiko bermearen kontra gauzatuko da lehenik, SPKLren 71. artikuluaren 2) atalaren b) letran ezarritakoa gorabehera. Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzak sailkatuta gelditu diren ordenaren arabera, Agiri honen 17. klausulan eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta gero. Hamar egun balioduneko epea emango zaio dokumentazio hori aurkezteko.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du; hark gainbegiratuko ditu lanak, erabakiak hartuko ditu eta beharrezkoak diren jarraibideak aginduko ditu, hitzartutako prestazioak behar bezala burutzen direla ziurtatzeko, erakunde kontratistak esleitzen dizkion gaitasunen barruan betiere.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, eta erakunde kontratistari lotuta egon daiteke edo ez.

Kontratuaren arduradunak ematen dituen aginduak nahitaez bete beharko ditu kontratistak.

20. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua baldintza hauen arabera gauzatuko da:

a) Kontratistak kontratua dagozkion baldintzen eta terminoen arabera gauzatuko du, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honetan eta haren Karatulan, Preskripzio Teknikoen Agirian eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan xedatutakoaren arabera, eta erakunde kontratistak, kontratua interpretatzean, kontratistari emandako aginduei jarraiki.

b) Kontratuak indarrean dauden eta lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun gaietan aplikagarriak diren legezko, erregelamendu xedapenak eta xedapen konbentzionalak bete behar ditu.

Testuinguru horretan, lizitatzaileek aditzera eman beharko dute, 2. gutun azalean ("Balio-judizioaren bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa"), zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xedea den jarduera egingo duten langileei, propioak izan nahiz azpikontratatutakoak izan, bera esleipendun gertatuz gero. Kontratuaren xedea den jarduera egingo duten langileei kontratistak aplikatu beharrekotzat jotako hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean sartuko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Gainera, esleipenduna behartuta egongo da, behin kontratua esleituta, langile horiei egiazki aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruzko informazio ematera.

Kontratua gauzatzen den bitartean, aplikagarri den sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordainduko dio kontratistak langile bakoitzari, dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta sekula ere ez da hitzarmenean adierazitakoa baino soldata txikiagorik ordainduko.

Atal honetan aurreikusitako betebeharrak gauzatze-baldintza bereziak eta funtsezko betebeharrak izango dira, SPKLren 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta beraz, horiek ez betetzea kontratua suntsitzeko arrazoia izango da, erakunde kontratistak hala nahi badu.

c) Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara egingo da.

d) Erakunde kontratistak, noiznahi eta edozein bide erabilita, kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu ahal izango du kontratuko betebeharrak behar bezala betetzen direla eta kontratua modu egokian gauzatzen dela.

Horretarako, erakunde kontratistak egoki iritzitako kanpoko laguntzak eskatu ahal izango du, kontratuaren betebeharrak zuzen betetzen direla egiaztatu edo ikuskatzeko, bai eta lanek kalitate-maila egokia dutela ziurtatzeko ere.

Kontratistak erakunde kontratistak zerbitzuak direla-eta eskatzen dizkion guztiak emango dizkio, beharrezkoa den laguntza emanez, kostu gehigarririk gabe, eta erraztasunak emango dizkio, halaber, kontratatutako zerbitzuei loturiko lan eta administrazio dokumentazioa edo bestelakoa eskuratzeko.

Kontratistak ez ditu oztopatuko erakunde kontratistaren gainbegiratze eta kontrol lanak.

Nolanahi izanda ere, erakunde kontratistak ez betetzeren bat edo eragozpenen bat hautemanez gero, zuzenean jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari, haren eskumenekoa baita, azken batean, zerbitzua ematen duten langileak antolatzea, gainbegiratzea edo, hala badagokio, zigortzea.

e) Langile guztiak kontratistaren mende baino ez dira egongo, eta hark izango ditu enpresaburu moduan dagozkion eskubideak eta betebeharrak. Ezin izango zaio inolako erreklamaziorik egin erakunde kontratistari, lan harreman horiei edo gainerako betebeharrei loturik.

f) Kontratista izango da erantzule bakarra edozein ezbehar edo erreklamazio (judizial edo estrajudizial) gertatzen bada, kontratua gauzatzen ari diren langileei lotuta, bai bere langileei bai azpikontratetako langileei lotuta, eta erakunde kontratistak ez du bere gain hartuko kontratistari zuzenean edo zeharka dagokion inolako erantzukizunik, lanari (segurtasuna, higienea eta laneko osasuna barne),

Gizarte Segurantzari edo zergei dagokienez. Era berean, kontratistaren ardura izango dira, guztiz, kontratua betetzeagatik gertatu daitezkeen hondamendi guztiak.

g) Kontratistak **karatularen 15. puntuan**, hala badagokio, berariaz ezartzen diren baldintzak bete beharko ditu.

21. KONTRATU BETEBEHARRAK

Honako hauek izango dira kontratu betebeharrak:

a) Kontratuaren obligazio nagusia betetzea, klausuletan eta Agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian jarritakoa zorrotz betez.

b) Indarrean diren lege eta arauzko xedapenak betetzea, bai eta lan arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasun alorrean indarrean direnak ere, Agiri honen 20. klausularen bigarren marratxoan adierazitako baldintzetan. Alde horretatik, kontratistaren betebeharra izango da, kontratatutakoa egiten ari den bitarte guztian, langile bakoitzaren lanbide-kategoriaren arabera dagokion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaintzea, eta inola ere ez ordaintzea soldata hori baino gutxiago.

c) Kontratua egiteko atxikitzea kontratistaren eskaintzan konprometitutako giza baliabideak (bereak nahiz azpikontratatutako enpresarenak) eta/edo baliabide materialak.

d) Bere jarduera egiteko izan behar diren lizentziak eta baimenak eskuratzea, bere kontura.

e) Sektorean unean-unean indarrean den araudian xedaturikoaren arabera ematea zerbitzuak. Horretarako, bai kontratistak bai haren langileek unean-unean indarrean den araudiak eskatutako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko ziurtagiriak eduki beharko dituzte.

f) Behin betiko bermea jarri eta hari eustea.

g) Kontratua gauzatzen den bitartean, agiri honen 25. klausulak kontratistari eskatzen dizkion estaldurak eta aseguruak kontratatu edo edukiko ditu gutxienez.

h) Kontratua gauzatzeko egin beharreko eragiketen ondorioz hirugarrenei egindako kalte eta galera guztien kalte ordaina kontratistak ordainduko du.

i) Kontratua behar bezala betetzeko erakunde kontratugileak beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak ematea, batere kosturik gehitu gabe, hala nola lan eta informazio bileretara joatea. Betebehar hori indarrean izango da kontratua amaitu arte

j) Greba izanez gero ere ematea zerbitzua. Zerbitzu horiek ez badira bermatzen, entitate kontratatzaileak zerbitzuak betetzeko izan behar diren kontratuak sustatzeko eskumena edukiko luke, kontratu horien zenbatekoa beraien fakturaziotik kenduz.

   Greba den bitartean, betetzen diren zerbitzuei dagokien prezioa bakarrik ordainduko da.

k) Langileak ordezkatzea, baldin eta ez badute beren eginkizuna egin behar den arduraz eta eraginkortasunez egiten, ez badute egin beharrekoa egiteko gaitasunik, kontu gutxirekin ematen badituzte zerbitzuak edo kontratuaren martxa onari kalte egiten dioten gauzak egiten badituzte. Entitate kontratatzaileak helburu horretarako eskakizuna egiten duen momentutik hogeita lau orduko gehieneko epearekin. Langileak ordezkatzeak ez du inolako erantzukizunik izango entitate kontratatzailearentzat eragindako langileen eta kontratistaren arteko erlazioaren aldetik.

   Aipatutako langileek dagokion baimena dutela frogatu beharko dute beraien jarduketa hasi baino lehen.

l) Gaixotasunak, oporrak, baimenak, lizentziak, istripuak eta abarrek sortutako bajengatik dauden lan absentziak betetzeko langileen ordezkatzea, kontratatutako zerbitzuen prestazio eraginkor eta jarraitua bermatzen duena. Hogeita lau orduko gehieneko epearen barruan.

m) Pleguan, Karatulan eta/edo gaian aplikagarria den estatuko eta Europar Batasuneko legislazioan aurreikusten denarekin bat datu pertsonalen babes aldetik kontuan hartu behar diren betebehar guztiak bete edo betetzea egiaztatzea.

n) Karatularen 16. puntuan berariaz adierazten diren betebeharrak betetzea, hala dagokionean.

Karatularen 16. puntuan aurreikusten diren betebeharrek funtsezko kontratu-betebehar dira SPKLren 211.1.f.f) artikuluan aurreikusten den bezala. Hori betetzen ez bada, kontratua bukatu egingo litzateke, entitate kontratatzaileak nahi duenean.

22. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Kontratistak araudi hauetan jasotako obligazioak bete beharko ditu: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa, eta kontratua indarrean den bitartean aplikagarria den datuak babesteko estatuko nahiz Europar Batasuneko beste edozein arauri jarraikiz dagozkionak ere, bere jardueren esparruan eta bere kontura eta erabakiz gauzatuko diren datu pertsonalen tratamenduak direla eta, tratamendu horren Arduraduna den aldetik.

Hala dagokionean, betebehar horrek ez dio kalterik egingo Karatularen 17. puntuan berariaz ezartzen denari, erakunde kontratatzaileak bere kontura egin dezakeen datu pertsonalen edozein tratamenduren inguruan.

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU BETEBEHARRA

Indarreko legediak informazio publikoa eskuratzeari buruz xedatzen duena eta esleipenaren publizitateari buruz eta enpresa hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz SPKLan jasotzen diren xedapenak alde batera utzi gabe, erakunde kontratatzaileak ezin izango du zabaldu lizitatzaileek beren eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat jota eman duten informazioa. Konfidentzialtasun horrek barne hartzen ditu, besteak beste, sekretu teknikoak edo komertzialak, eskaintzetan isilpean gorde beharreko alderdiak eta, lizitazio prozesu honetan nahiz geroagoko beste batzuetan, lehiak faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informazio.

Kontratistak errespetatu egingo du kontratua gauzatzeko garaian irits dakiokeen informazioaren konfidentzialtasuna, Agirietan edo kontratuan informazio horri halako izaera eman baldin bazaio, edo duen izaeragatik beragatik informazio konfidentziala baldin bada.

Konfidentzialtasun betebehar hori **Karatularen 18. puntuan** adierazitako epe guztian gordeko da.

24. ERANTZUKIZUNA

Kontratista garatzen dituen lanen kalitate teknikoaren eta egindako prestazio eta zerbitzuen erantzulea izango da, baita entitate kontratatzailearen edo hirugarren pertsonen alde egingo diren kenketen ondorioenak ere, kontratuaren gauzatzean egindako omisio, akatsak, okerreko metodo edo ondorioengatik.

Kontratistak ordainduko ditu kontratua gauzatzeko egin beharreko jardueren ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztiak.

25. ASEGURUAK

Kontratistak kontratuak irauten duen epe osorako, bere kabuz, Karatularen 20. puntuan adierazitako aseguruak kontratatuko ditu, hor adierazten diren modu eta baldintzetan.

26. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Kontratistak baimendutako iturrietatik eta bere kostura bakarrik, ekipo informatikoen (hardware eta software) erabilera eta/edo esplotazioarako edozein lizentzia eta eskubide edo edozein motatako edozein laguntza ekipo eta/edo bitarteko lortu behar ditu, egungo Agirian eta Preskripzio Teknikoen Agirian ezartzen denaren arabera, adskribatu, eman edo gauzatzean mantendu behar dituenak kontratuaren objektu diren zerbitzuen prestaziorako.

Era berean, SPKLren 308.1 artikuluan ezarritakoa kontratazio honetara erabat aplikagarria izango da. Izate horretan, kontratuaren objektu diren zerbitzuen gauzatzearen emaitzaren gaineko jabetasuna, bere osotasunean edo edozein fasetan, entitate kontratatzailearenak besterenak ez dira izango. Hori guzti hori, hargatik eragotzi gabe egile-eskubide moralak eta/edo asmatzailetzat hartua izateko eskubidea, betiere Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta/edo Patenteen uztailaren 24ko 24/2015 Legean ezarritakoaren arabera kontratistari baldin badagozkio, erakunde kontratatzaileak behar bezala bete beharko baititu horiek.

Karatularen 19. puntuan izaera bereziarekin ezartzen denaren ondorioz, eta honi kalte egin gabe, hala dagokionean, kontratistak kontratuaren objektu diren zerbitzuen emaitzaren erabilera baketsua ziurtatu beharko dio entitate kontratatzaileari, derrigortuz, hala dagokionean, honen parte diren edozein elementuen baimen eta eskubide egokiak jasotzera modu legitimoan eta baimendutako iturrietatik. Era berean, entregatzeko momentuan adierazi beharko dute emaitza horrek ez duela egungo kontratazioagataik entitate kontratatzaileari dagozkion eskubideen kontra jotzen duten inolako konpromisorik edo zergarik.

Nolanahi ere, kontratuan ez dauden hirugarren pertsonek egin ditatzeketen Jabetza Intelektual eta/edo Industrialari erlazionatutako edozein kexaren arduraduna kontratista izango da, honako gaiekin erlazionatuta daudenak:

- Jabetza Industrial edo Intelektualen eskubideak babestuta dauden material, tresneria eta beste edozein lanabesen erabilera, zerbitzuen prestazioan.

- Aipatutako emaitzaren parte diren kontratazio honen objektu diren zerbitzuen emaitza eta/edo beste edozein elementu.

Aurretik esandakoari kasu eginez, kontratistak entitate kontratatzaileari kalte-ordainketak egin beharko dizkio aipatutako kontzeptuekin erlazionatuta dauden erreklamazioetatik eratorri daitezkeen kalte-galerengatik.

27. PENALIZAZIOAK

a) Atzeratzeak eragindako zigorrak.

Kontratistak, berari leporatu dakizkiokeen arrazoiengatik, Agiri honetan eta/edo Karatulan adierazitako gauzatzeko edozein epe betetzeko orduan atzerapena izan badu, erakunde kontratatzaileak kontratua indargabetu ahal izango du Agiri honen 33. klausulan adierazitakoari jarraiki edo obra gauzatzen jarraitzeko erabakia har dezake; azken kasu horretan, erakunde kontratatzailearen aldekoak izango dira, dagozkion kalte eta galerengatiko edozein kalte-ordainez gain, Karatularen 21. puntuan adierazitako zigorrak.

Kontratista berandutzeak ez du erakunde kontratatzailearen aldetik aurrez abisatu beharrik ekarriko.

b) Kontratatutako prestazioak akatsekin egiteak edo kontratuko beste edozein baldintza ez betetzeak eragindako zigorrak.

Kontratistak, berari leporatu dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratatutako zerbitzuak gaizki gauzatzen baditu edo kontratuko beste edozein baldintza betetzen ez badu, erakunde kontratatzaileak kontratua indargabetu ahal izango du Agiri honen 33. klausulan adierazitakoari jarraiki, edo obra gauzatzen jarraitzeko erabakia har dezake; azken kasu horretan, erakunde kontratatzailearen aldekoak izango dira, dagozkion kalte eta galerengatiko edozein kalte-ordainez gain, Karatularen 21. puntuan adierazitako zigorrak.

Zigorren zenbatekoak kontratistari ordaindu beharreko guztizko ordainketatik edo ordainketa partzialetik kenduko dira edo, haietatik ezin kendu daitezkeenean, jarritako bermetik, eta eskatu egingo zaio jarritako bermea gainditzen duen zenbatekoa.

Nolanahi ere, hala kontratua bertan behera uzten denean nola kontratuari jarraipena ematea erabakitzen denean, erakunde kontratatzaileak bere aldetik erabaki ahal izango du zerbitzua egoki iruditzen zaion denboran jarraitzea, bere bitartekoekin edo hirugarrenen bitartekoekin, eta bi kasuetan jarraipenaren kostuak kontratistaren kontuan kargatuko ditu. Gainera, Klausula honetan aurreikusitako kalte-galeren ordainak eta bestelako ondorioak ordainduko ditu kontratistak.

28. KONTRATUA LAGATZEA

SPKLren 98. artikuluak finkatutako kontratistaren ondorengotza kasuak alde batera utzita, kontratuaren aldaketa subjektiboa kontratua lagata baizik ez da bideratuko, betiere Klausula honetan finkatutako mugen barruan eta aukera hori **Karatularen 22. puntuan** berariaz jasota baldin badago.

Laga ahal izateko, SPKLren 214.2 artikuluaren a), b), c) eta d) hizkietan eskatzen diren baldintzak bete beharko dira:

a) Kontratazio Organoak, aldez aurretik eta berariaz, lagapena baimentzea, SPKLren 214.2.a) artikuluan adierazitako baldintzetan. Baimen eskaeraren inguruko erabakia jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da, eta hura igaro ondoren, eman dela ulertuko da.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 gauzatua eduki behar du, betiere SPKLren 214.2 b) artikuluan finkatutakoarekin bat etorrita.

c) Lagapen hartzaileak sektore publikoko erakundeekin kontratatzeko gaitasuna izan behar du, eskatutako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa eta profesionala izango ditu, eta ez du kontratatzeko debekurik izango, betiere SPKLren 214.2 c) artikuluan finkatutakoarekin bat etorrita.

d) Lagapen hori esleipendunaren eta lagapen hartzailearen artean formalizatuko da, eskritura publikoan, SPKLren 214.2 d) artikuluan finkatutakoarekin bat etorrita.

Lagapen hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

29. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak prestazioaren zati baten gauzatzea hirugarrenekin adostu ahal izango du klausula honek eta SPKLren 215. artikuluak xedaturikoa betez gero, hala badagokio, **Karatularen 23. puntuan** adierazitako prestazioak izan ezik.

Kontratistak, kontratuaren adjudikazioaren ondoren, eta beranduenez honen gauzatzea hasten duenean, idatzi baten bidez komunikatu beharko dio Kontratazio-organoari azpikontratuak egiteko intentzioa, prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi den eta identitatea, harremanetarako datuak eta azpikontratistaren legezko ordezkari edo ordezkariak esanez, eta zati hau gauzatzeko gaitasun nahikoa edukitzea justifikatuz dituen giza eta teknika elementuak eta bere esperientziari erreferentzia eginez, eta SPKLren 71. artikuluaren arabera kontratatzeko debekurik ez duela frogatuz.

Kontratista nagusiak idatziz jakinaraziko dizkio Kontratazio Organoari kontratu nagusia gauzatzen den bitartean informazio honetan izan litekeen edozein aldaketa eta azpikontratista berriei buruz behar den informazio guztia.

Azpikontratistak azpikontratuaren xedeko kontratuaren zatia gauzatzeko sailkapen egokia baldin badu, nahikoa izango da inguruabar horren berri ematea haren gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratua beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko, edo presazko neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratatuek soilik enpresa kontratista nagusiaren aurreko obligazioa dute; beraz, enpresa kontratistak bere gain hartuko du prestazioa gauzatzeko erantzukizun osoa erakunde kontratatzailearen aurrean, betiere Orri honetan, Gauzatze Proiektuan eta sinatzen den kontratuan xedaturikoari jarraiki. Era berean, enpresa kontratistak du SPKLren 201. artikuluan xedaturiko ingurumeneko, lan arloko edo arlo sozialeko betebeharrak betetzeko obligazioa; bai eta SPKLren 202. artikuluren 1. apartatuko azkeneko paragrafoak datu pertsonalak babestearen gainean estatuko eta Europar Batasuneko araudiaren mende izateaz jartzen duena betetzekoa ere.

Erakunde kontratatzaileak kontratista nagusiak sinatutako azpikontratuak ezagutzeak ez du aldaketarik eragingo soilik kontratista nagusiak duen erantzukizunean.

Azpikontratistei eta hornitzaileei SPKLren 216. eta 217. artikuluetan finkatutako moduan ordainduko zaie, eta artikulu horietan xedaturikoari jarraiki egiaztatuko dira ordainketa horiek.

30. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLaren 205. artikuluan jasotako kasuetan.

Gainera, Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du **Karatularen 24. puntuak** aukera horretaz berariaz ohartarazten duenean eta bertan finkatutako baldintzekin bat etorrita.

Kontratuaren aldaketen ondorioz ezin izango dira kontratuan aurreikusi ez diren aleko prezioa berriak ezarri.

SPKLren 153. artikuluan xedaturikoari jarraiki formalizatuko dira kontratuaren aldaketak.

31. HARRERA ETA BERME ALDIA

Kontratua betetzat joko da kontratistak xedea osorik gauzatu badu kontratuan bertan adierazitakoaren arabera eta erakunde kontratatzailearen gogara.

Hartze partzialetako bakoitzean, hala dagokionean, baita hartze osoan, entitate kontratatzaileak kontratistak egindako prestazioa bere gauzatze eta betetzerako ezarritako preskripzioetara egokitu den zehaztuko du, eskatuz, hala dagokionean, kontratatutako prestazioen gauzatzea eta hartzean ikusitako akatsen zuzenketa.

Kontratistari egotz dakizkiokeen akatsen edo hutsen ondorioz, egindako lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, erakunde kontratatzaileak lan horiek errefusatu ahal izango ditu, eta ez du ordainketarik egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

Hori guzti hori 27. Klausulan aurreikusitakoari kalte egin gabe, eta entitate kontratatzaileak egokiak deritzon penalizazioak eskatu ahalko ditu, baita berandutzeagatik, kontratatutako prestazioen gauzatze ez zuzenagatik eta/edo kontratu-betebeharren edozein baldintzen ez betetzeagatik kalte-ordainak ere.

Berme aldia **Karatularen 25. puntuan** adierazi da.

Aipatutako berme epe horretan zehar egiaztatzen bada akatsak edo okerrak daudela egindako lanetan, Kontratazio Organoak kontratatzaileari haiek konpontzeko eskatzeko eskubidea izango du.

Berme epea amaitzean erakunde kontratatzaileak ez badu klausula honetan adierazitako eragozpen edo salaketarik jarri, kontratistak ez du erantzukizunik edukiko egindako prestazioen gainean.

32. KONTRATUA INDARGABETZEA

Erakunde kontratatzaileak kontratua indargabetu ahal izango du baldin eta kontratistari ordaintzen badizkio ondorio horietarako berariaz aplikatu behar den SPKLren 208.2 artikuluan aurreikusitako kalteak eta galerak.

33. KONTRATUA IRAUNGITZEA

Kontratua iraungi egingo da betetzen denean edo jarraian araututakoaren arabera kontratua indargabetzea adosten denean.

Hona hemen kontratua indargabetzeko arrazoiak, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu:

a) Konkurtsoa deklaratzea edo kaudimengabezia deklaratzea, beste ezein prozeduratan.

b) Jarrita diren epeak ez betetzea kontratistak.

c) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

d) Gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea, betiere betebehar horiek funtsezko izendatu badira.

e) Prestazioa hasieran adostutako baldintzetan gauzatu ezin izatea eta kontratua aldatu ezin izatea agiri honetan ezarritakoari jarraikiz.

f) Kontratua gauzatzen ari denean kontratistak hartan esku hartzen ari diren langileei soldatak ez ordaintzea edo, era berean kontratua gauzatzen

g) Oro har, kontratuko edozein betebehar ez betetzea, Kode Zibileko 1.124 artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

h) SPKLren 313. artikuluaren 1. atalean ezarritako kontratuaren ebazpenaren kausak, bereziki aplikagarriak direla adierazten direnak. Honakoak dira:

1. Zerbitzuen prestazioarekin hasi baino lehen atzera egitea edo, Kontratazio-organoari egozgarria den kausa batengatik, kontratuaren hasiera ezarritako datatik baino lau hilabeteko epe baino handiagoan etetea.

2. Behin zerbitzuaren prestazioa hasi dela atzera egitea edo Kontratazio-organoak adostutako zortzi hilabeteko epea baino luzeago kontratua etetea.

Klausula honetan kontratua indargabetzeko aurreikusitako kasuetan, kontratua automatikoki indargabetuko da, eta nahikoa izango da erakunde kontratatzaileak kontratistari erabakiaren jakinarazpen fede emailea egitea.

Jakinarazpena jasotakoan, enpresa kontratistak berehala eman beharko dizkio erakunde kontratatzaileari, eta haren esku utzi, kontratatutako prestazioak gauzatzeko kontratistak berak ordura arte eginak dituen dokumentu guztiak; bai eta kontratua dela eta, sortutako gainerako dokumentazioa eta informazioa ere, erakunde kontratatzaileak kontratistari emandako eta hark erabilitako dokumentuekin batera, den-denak geratuko dira erakunde kontratatzailearen esku eta erakunde kontratatzailea izango da guztien jabe.

Hori guztia, ondoren kontratuaren arabera egin beharreko likidazio ekonomikoaren kalterik gabe, jarraian xedatutakoaren arabera.

Kontratua suntsiarazteagatik sor litezkeen erantzukizun ekonomikoak, klausula honetan aurreikusitako kausengatik nahiz legez bidezko diren beste batzuengatik, behin kontratua egiazki suntsiarazitakoan eta dagokion dokumentazioa entregatutakoan likidatuko dira; erakunde kontratatzaileak, nolanahi ere, kontratua gauzatzen jarraitu ahal izango du.

Kontratua indargabetuta ere, kontratistak printzipioz badu egiazki gauzatutako eta onartutako prestazio guztien prezioa jasotzeko eskubidea.

Kontratua kontratistari egotz dakiokeen arrazoi batengatik suntsiarazten denean, **Karatularen 26. puntuan** aurreikusitako kopurua itzuliko zaio erakunde kontratugileari, eta kopuru hori jaso ditzakeen kalte-ordainei gehituko zaie. Bi kopuru horiek behin betiko bermetik eta enpresa kontratistari ordaintzeko gelditzen den preziotik kenduko dira, eta gainerako guztia eskuratzeko, erreklamazio bat egingo da.

Hori horrela izanik ere, SPKLren 313. artikuluaren 3. atala aplikagarria adierazten da, hau da:

a) Klausularen h.1 letran aurreikusitako ebazpenaren ustezkoan, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, kontratuaren adjudikazioaren prezioaren %3a (BEZarena sartu gabe) bakarrik jasotzeko eskubidea izango du kalte-ordainetan.

b) Klausularen h.2 letran aurreikusitako ebazpenaren ustezkoan, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, onura industrial kontzeptuan emateko zerbitzuen kontratuaren adjudikazioaren prezioaren %6a (BEZarena sartu gabe) jasotzeko eskubidea izango du.

Azkenik, erakunde kontratatzailea eta kontratista ados jar daitezke kontratua indargabetzeko; kasu horretan, alderdien eskubideak eurek balioz hitzartu dutenera egokituko dira.

34. ARAUBIDE JURIDIKOA

Izaera pribatukoa da kontratua. Prestaketari dagokionez, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek eta Preskripzio Teknikoen Agiriak eraenduko du; eta esleipenari dagokionez, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek eta Preskripzio Teknikoen Agiriak; eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, SPKLk ondorio horiei begira finkatutako arauak (esleitzeko ahalmena duten baina Administrazio Publiko ez diren sektore publikoko erakundeek egindako kontratu erregulazio harmonizatukoez besteko kontratuen kasuetan).

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, honako hauek arautuko dute kontratua: Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek eta Preskripzio Teknikoen Agiriak eta, horietan jasota ez dagoen guztirako, zuzenbide pribatuko arauek. Edonola ere, SPKLren 319. artikuluan “ondorioei eta amaitzeari” buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkio kontratu honi.

Eta, horiez gainera, 2001eko urriaren 12ko 1089/2001 Errege Dekretua ere aplikatuko da, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, agiri hauek arau testu horietara berariaz joarazten duen guztian.

Nolanahi ere, datuak babesteari dagokionez, estatuko eta Europar Batasuneko araudia bete beharko du kontratuak.

35. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa izango da eskuduna kontratuak prestatzeari, esleitzeari eta aldatzeari buruz sortzen diren auziak ebazteko, azken horiek inpugnatzeko arrazoiak SPKLren 204. eta 205. artikuluetan xedatutakoa ez betetzean oinarritzen badira eta dena delako aldaketa beste esleipen baten xede behar zuela ulertzen bada.

Hala badagokio, errekurtsoa aurkeztuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean, SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honen lehenengo paragrafoan adierazitako kontratuen aldaketen kasuan izan ezik, jurisdikzio ordena zibilak izango du kontratuaren ondorioei eta kontratua betetzeari eta iraungitzeari dagokienez aldeen artean sortzen diren desadostasunak ebazteko eskumena.

I. eranskina. Abal eredua.

[…] erakundeak (kreditu erakundearen edo elkarrekiko bermearen sozietatearen izen soziala) (IFK: […]; eta jakinarazpen eta eskaeretarako helbidea: […]), eta, haren izenean, […] jaun/andreak (ahaldunen izen-abizenak), zeinak ekintza honetan behartzeko behar besteko eskumena baitu, dokumentu honen beheko aldean ageri den ahalmenen askiespenaren arabera, honako hau ABALATZEN DU: […] (abalatuaren izen-abizenak edo izen soziala) (IFK: […]), […](r)en aurrean, […] euroko zenbatekoan, […] kontratutik eratorritako betebeharrei erantzuteko.

Erakunde abal emaileak bere erantzukizunpean aitortzen du betetzen dituela urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak (1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena). Abal hau solidarioki ematen da behartu nagusiari dagokionez, eta berariaz uko egiten zaio eskusio eta banaketa onurari. Horrez gain, […] lehenengoz eskatzean ordaintzeko konpromisoa hartzen da.

Abala indarrean izango da [...] indargabetu edo itzultzeko baimena eman arte.

[...(e)n], [...ko] [...aren] [...(e)an].

[Sinatua]

II. eranskina. Adierazpenen notario agiriaren eredua lizitatzailea, exijitutako kaudimena eta/edo exijitutako baliabideak esleitzeko konpromisoa egiaztatzeko xedean, beste entitate batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritzen den kasuetan.

[OHARRA: Lizitatzaileak eskaintzarik onena aurkeztu duen kasuan baizik ez da aurkeztuko, edo exijitutako kaudimena eta/edo exijitutako baliabideak esleitzeko konpromisoa beste entitate batzuen kaudimenetan eta/edo baliabideetan oinarritzen den kasuan. ***Hirugarren erakundeak bete behar du]***

..... jaunak/andreak, NAN ..... duenak, ... enpresaren (IFZ:.....) legezko ordezkari gisa, adierazi du oso-osorik ezagutzen dituela ..... (enpresa lizitatzailearen izena) enpresa lizitatzaileak lehiatu behar duen […] kontratatzeko lizitazioaren baldintzak, eta esleipendun ateratzen bada, kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak lizitatzaile horren esku jartzeko borondate ezeztaezina adierazten duela, Kode Zibilaren 1257.2. artikuluan xedatutakoa espresuki onartuta (horiek ordezkatu edo aldatzeko, […] ren berariazko baimena beharko da).

Dena delako lizitatzailea esleipendun izaten bada eta idatzi hau […]ren aurrean aurkezten badu, konpromiso hori onartzen dela ulertuko da.

[...(e)n], [...ko] [...aren] [...(e)an].

[Sinatua]

III. eranskina. Kontratatzeko Europar Dokumentu Bakarra (KEDB). *[OHARRA: Kontratatzailearen profilean KEDB eredua eskura daiteke bai pdf formatuan bai xml artxibo gisa].*

IV. eranskina. Giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa.

[…] jaun/andreak, […] helbidea duenak eta […] NAN zenbakidunak, bere izenean edo […]ren ordezkari gisa ([…] bertutez), […] helbidea duena eta […] NAN edo IFK zenbakiduna, eta ahalmen juridiko eta jarduteko osoa izanda, […]ren lizitazioaren berri izanda, honako honen bidez

ADIERAZTEN DU:

Konpromisoa hartzen duela, esleipendun izanez gero, aipatutako kontratazioaren Karatularen 10. puntuan eskatutako gutxieneko giza baliabideak eta baliabide materialak kontratuaren exekuziorako atxikitzeko.

Eta horrela jasota gera dadin, giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxikitzeko honako konpromiso hau hartzen du, […](e)n, ….ko ……..ren ……..(e)an.

[Sinatua]

V. eranskina. Formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko proposamena.

[…] jaun/andreak, […] helbidea duenak eta […] NAN zenbakidunak, bere izenean edo […]ren ordezkari gisa ([…] bertutez), […] helbidea duena eta […] NAN edo IFK zenbakiduna, ahalmen juridikoa eta jarduteko ahalmena izanda, […] prozedura […] bidez kontratatzeko lizitazioaren berri edukita, honako honen bidez

ADIERAZTEN DU

1. Anoetako Miniestadioa birmoldatzeko Proiektua eta Eraikuntza modu Integratuan Kudeatzeko zerbitzuen kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen duela, baldintza hauetan:

- Eskainitako prezioa: ……. euro (BEZarena sartuta), honela bananduta:
  - Prezioa (BEZik gabe): […] euro.
  - BEZa: […] euro.
- Zaintzailea obran izatea: …. … … ….. … … … …. egun astean.

2. Badakiela kontratua arautzen duen kontratu-dokumentazioak zer jartzen duen, berariaz hartzen duela bere gain eta osorik onartzen duela.

[...(e)n], [...ko] [...aren] [...(e)an].

[Sinatua]

VI. eranskina. Erantzukizunpeko adierazpen eredua.

[…] jaun/andreak, […] helbidea duenak eta […] NAN zenbakidunak, bere izenean edo […]ren ordezkari gisa ([…] bertutez), […] helbidea duena eta […] NAN edo IFK zenbakiduna, ahalmen juridikoa eta jarduteko ahalmena izanda, […] prozedura […] bidez kontratatzeko lizitazioaren berri edukita, honako honen bidez

ADIERAZTEN DU

Lehenengoa.- Eskaintza aurkezteko egunean ez duela Sektore Publikoaren Kontratuen azaroaren 8ko 2017/9 71. artikuluak dakarren kontratatzeko debekurik batere, lege horren bidez Espainiako araudi juridikoan jaso baitira Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 23/2014/EB eta 24/2014/EB Zuzentarauak.

Bigarrena.- Berariaz onartzen duela erakunde kontratatzaileak instituzio gardentasuna ematea lizitazio, esleipen eta gauzatze prozesutik (esleipendun suertatzen bada) etorritako datu guztiei amaitzen den arte.

[...(e)n], [...ko] [...aren] [...(e)an].

[Sinatua]

VII. eranskina. Zerbitzarien kokapena eta zerbitzariei lotutako zerbitzuak emateko tokia adierazteko eredua

[…] jaun/andreak, […] helbidea duenak eta […] NAN zenbakidunak, bere izenean edo […]ren ordezkari gisa ([…] bertutez), […] helbidea duena eta […] NAN edo IFK zenbakiduna, eta ahalmen juridiko eta jarduteko osoa izanda, Administrazio Klausula Partikularren Agirian jarritako betebeharrak betetze aldera, honen bidez

ADIERAZTEN DU

1.- Taula honetan adierazi dira kontratatzaileak kontratua gauzatzea dela eta tratatuko dituen datuak tratatzeko euskarri izango diren zerbitzarien kokapena eta zerbitzariei lotutako zerbitzuak emango diren lekua:

ZERBITZARIEN KOKAPENA
ZERBITZARIEI LOTUTAKO ZERBITZUAK EMATEKO LEKUA

2.- Onartzen duela derrigortuta dagoela kontratuak duen bizialdi guztian deklarazio honetan emandako informazioan izaten den edozein aldaketa jakinaraztera.

[...(e)n], [...ko] [...aren] [...(e)an].

[Sinatua]